

Ekon, gogorra eta gozoa batera

'Etnia 2000' izeneko diskoa aurkeztuko du



ARTXIBOA

Ekon taldeko partaideak.

Kontrastea da Ekon musika taldearen oinarrietako bat, eta horrekin eta beste hainbat osagairekin, doinu trinkoa, zehatza eta sendoa osatu dute. Doinu gogorrèkin batera, ahots gozoak nahasi dituzte, eta egin dituzten erritmo eta giro aldaketek arindu egiten dute Ekoneko kideek kaleratu berri duten *Etnia 2000* izeneko bigarren diskoaren edukia.

Horrek kontrastea ekarri die, eta horren ispilu da beren lan berria. «Gu ez gara kontrastearen bila joan», diote Ekoneko kideek. «Garapena naturala izan da, lanak berak eskatzen ziguna hain zuzen ere». Bigarren disko honek beren estilo propioa lantzeko bidea eman dien arren, aldaketa handirik ez dute egin. Aldaketa nabarmena taldea handitzea izan da.

Hitzetan kritika soziala eta salaketa sumatzen da. Ekonekoen esanetan, «inguratzen gaituen ororen salaketa egin nahi dugu; presoek jasaten duten

Ahots gozoak nahasi dituzte, eta egin dituzten erritmo eta giro aldaketek arindu egiten dute 'Etnia 2000' bigarren diskoaren edukia.

dispertsioa, eraikuntza nazionala... Eguneko agendan dauden gaiak dira, nahiz eta jakin denak jorratzeko disko asko behar ditugula».

Hitzak gordiak izan arren, jarrera baikoarra azaltzen dute. Gaizki dagoenari buruz hitz egiten dute, baina konponbideak aurkitzen saiatzen dira. Egungo arazoaren aurrean beren ikuspuntua azaltzen dute, eta jendea hausnartetara bultzatu nahi dute.


'Etnia 2000' Euskal Herriko etorkizuna

Etnia 2000 izenak, atzerrian ulertzeko bidea emateaz gain, Euskal Herriaren etorkizuna eraiki behar duen belaunaldi horri ere erreferentzia egiten dio. 2000. urteko belaunaldiari, hain zuzen ere.

Aurrera begira, Euskal Herrian diskoa sakonki aurkezteko asmoa dute Ekoneko kideek. Etxean aurkezteaz gain, atzerriara begira ere jarri dira.

Floxbinen estreina herrian

Bigarren kontzertua du biharkoa



NOAUA



Floxbineko Txofo eta Riki.

Floxbin taldekoek ez dute asko behar bere pasioa den musika egiteko: bi partaide eta musika kaxa bat. Joseba Agirresarobe *Txofo* eta Ricardo Gonzalez *Riki* beti izan dira musikazaleak. Lehendik ere herriko musika talde batzuetan ibili dira, baina serioago hasi nahi zutela eta, biak elkartu eta Floxbin taldea osatu zuten duela hilabete batzuk.

Oraingoaz zazpi abesti dituzte eta gehiena kostatzen zaiena hitzak egitea da. Musika estilo propioa dute, ez dute inongo eredurik jarraitzen. Gogoia eta ilusioa ez zaie falta,

eta uda aldera edo maketa bat kaleratu nahiko lukete. Usurbilen izango dira, bihar, Etsaiak eta Ekon taldeekin batera. Talde honen bigarren kontzertua izango da eta gustura daude, musika ekipoa oso ona izango baita. Lehenengo kontzertua Zarautzen eman zuten, eta espero baino gehiago luzatu ziren, urduritasuna etsai izan baitzuten. Hala ere, nahiago omen dute leku txikitari jo, eta herriko pilotalekua handiegi geratuko zaien beldur dira, bi partaiderentzat eszenatokia handia baita. Bihar ikusi behar nola moldatzen diren; beraiek esaten duten moduan: egurra!

USURBIL AUTOAK



Zumartegi Industrialdea - Aitzerraga kalea, 24 - © 943 361 079

ANGULAS
MANTEROLA S.L.



Tel: 943 360 777 - Faxe: 943 363 585
Aginaga - 20170 USURBIL (Gipuzkoa)